



# Aranotik Aranora

Helpbidea - Herriko baserriak - Aranoko bide zaharra  
Aranon sortu dira - Aranoarren izenak - Lehen aldi haiek  
Itxialdia hurren begietan - Eta gehiago...



**zenbaki  
honetan**

Gurekin harremanetan jartzeko:  
[laga@iparmank.eus](mailto:laga@iparmank.eus)

Diseinu eta maketazioa:  
[astidiseinua.com](http://astidiseinua.com)

Testuak: Jose Iñazio Salaberria,  
Pello Huizi, Jon Mari Beasain,  
Ainhoa Ansa, Iñaki Roteta, Javier  
Ansa, Nerea Ansa eta Aranoko  
Udaleko euskara zerbitzua.

Azaleko argazkia: Iñigo Gambra

Argazkiak: Ohiana Calparsoro,  
Iñaki Roteta, Jon Mari Beasain,  
Iñaki Etxeberria, Iñigo Gambra  
(Txarako borda), Mikel Ruiz, Jose  
Inazio Salaberria, Ainhoa Ansa  
eta Pello Huizi



L.G.: NA 2378-2016



<b>Aurkezpena</b>	3	
<b>Aranon sortu dira...</b>	4-7	
<b>Arano tesi batean: Mitoak eta ohiturak</b>	8-9	
<b>Aranoarren izenak</b>	10-11	
<b>Bidez bide</b>	12-14	
<b>Helpbidea</b>	15-17	
<b>Arano iruditan</b>	18-19	
<b>Lehen aldi haiek</b>	20-21	
<b>Itxialdia Aranoko haurren begietan</b>	22-23	
<b>Gure baserrien etorkizuna azmartuz...</b>	24-26	
<b>Aranon Yoga</b>	27-29	
<b>Errezetak</b>	30	
<b>Denbora-pasak</b>	31	
<b>Ezagutzen al duzu Arano?</b>	32	<p>1.- Zein da Leunetako g altuera?</p> <p>a) 945 m b) 883 m</p>



## Ezohiko urte honetan...

**G**ehienontzat, ziur asko, 2020. urtea gure bizitzako urterik bereziena eta xebleena izan da. Pandemiak dena aldatu du, gauzak aldrebestu ditu, eta eragin handia izan du gure eguneroko bizitzako alderdi askotan.

Gauza dezente bertan behera gelditu da bistan denez, baina beste batzuek lortu dute aurrera egitea. Miaxiria aldizkariak, esate baterako. Hemen duzue, izan ere, zuen eskuetan, Miaxiria aldizkariaren seigarren zenbakia.

Aldizkaria, aurreko zenbakietan bezala, Aranoren argazki moduko bat izanen da. Alegia, Aranori begira jarri eta ikus dezakegunaren zati bat behintzat, islatuko da. Kontu interesgarriak, zalantzarik gabe, eta baita praktikoak ere. Esate baterako, Helpbidea izeneko atala, bertan agertzen baitira herriko etxe eta baserrien izenak eta bakoitzaren kodea, larrialdietarako balioko dutenak.

Hori, adibide gisa, baina aldizkariaren zehar bestelako kontu asko aurkituko

dituzue: bertsoak, mendiko ibilbideak, aranoarren izenen inguruko informazioa, baserriei buruzkoak, herrian egiten diren jardueren berri, irudiak, galderak, denborapasak...

Eskuetan duzu, beraz, Miaxiria aldizkaria osatzen duen lantaldearen ahaleginaren emaitza. Herria suspertzeko eta aberaste-ko asmoz egina dago, herriko biztzari eta bizitasunari ekarpena egiteko, espero du- gu horretarako balio izatea eta, gainera, zuen gustukoa izatea.



# Aranon sortu dira...



Uztapide

Andres Nabarte  
"Xalto"

Zepai

*Aranon sortu dira / amalau nobiyo  
zortzi konfitero eta / sei botikariyo.  
Seina kintalekuak (46kg) / amar armariyo,  
gizon batek a pultso / bizkarrian iyo,  
arrazoi onen kontra / nork egingo diyo.*

**A**rano eta Goizuetan (ondoko herria elkar harturik idatziko dut bertsolaritzaren gaineko idazlana, harreman handia delakotz bi herrien artean eta bertso maitale direlako goizuetarrak zein aranoarrak) bertsoa eta euskara mendez mende izan dira hemengo gizalagunengan, eta nola ziztangi-llak hala zapoek bertsolari zerrenda luxea utzi digute, jarraian ikusiko dugunez.

Sarrerako bertso itzela Xenpelar bertsolariarena da, Juan Francisco Petrirena Recondo 1835-1869. Bertso aldrebesa botatzeko esan omen zioten eta haratz ederki ekarri zuen Arano herria aipatuz. Bestetik, adituek diotenez, behin Goizuetara etorri zen kantuetara eta, kantu lagunik ez zuela topatzen, azkenik mutiko batek lagundu zion kantu lanetan eta saio bikaina egin zuten hango plazan. Haren jarrialdiak arrotz ez ziren gure etxean.

Errenteriatik salto txikia eginda Goizuetara joanen gara eta aurreneko bertsolari errenkan Berdabiorekin (Joseph de Echagarai) batean Altamiratarrak (Juan Bautista, 1759, eta honen iloba Martin Jose, 1785) izanen ditugu. Martinen bertso dotore honek erakusten digu hitz neurtuetan zuen abilezia:

*Cerua galcen duenac / infernua silla,  
lenago ere juanac / badirade milla.  
beti gu engañacen / etsaya dabilla,  
goacemacute Jesus / maitiaren billa,  
guregatican dago / gurucean illa.*

Aranora itzuliz, bertan goxo, nolatan ez aitatu Andres Mitxelena Intxauspe (1883-1909). Suroko Maiertzeko Bordakoa eta Goizuetako Ramona Loiarterekin ezkondua, izengoitz Kankarro esaten zioten. Haren "Ezkontza galduaren bertsoak" Euskal Herri osoan famatuak izan ziren Xabier Lete kantariari esker,



Maiartzeko borda.

*Bertso Zaharrak* diskoan atereak Antton Valverde eta Julian Lekuonak lagunduta. Denetara 24 ale eder dira eta nabaria dute Txirritaren eskua. Diotenez Andresek sortuak ziren, baina Txirritangana joan zen orraztu zitzan, orduan oso gauza arrunta zen. Adiskide min batek behin gauza bera kontatu zidan: haren birraitona Altzako Andres Arrieta (Marrus) bertsolari jatorrak Txirritari eskatu zion laguntza gertakari baten gaineko bertso batzuk osatzeko. Txirritak dotore asko paratu baina Marrusi ez gustatu, eta ziplo batean zirriborroa hautsi irarkola eraman baino lehenago. Segidan Suroko urrentxindorraren perla bat:

*Eskutikan elduta / asi zan esaten(bis)  
Andres zuregatikan / ez naiz apartatzen,  
lore ederragorik / ez tet nik ikusten,  
ezkondu aurretikan / diberti gaitzen,  
jai bat señalatuta / Donostira guazen.*

Txirrita, Jose Manuel Lujanbio Retegi (1860-1936), aitatu dugunez ataltxo bat egingo diogu inguruko bertsolari sonatu honi. Aranoko herriarekin lotura handia eduki zuen: alde bate-tik, lanbidez hargina zenez, Arranbide bueltan lanean aritu zen paretak altxatzen. Hango etxean apopilo zela Goizuetako andregaia egin zuen baina ez ziren ezkontzera iritsi. Beste pasadizo bat Aranoko tabernan bertsotan ari zela gertatu zen: gure etxeko izebarik zaharrena herritik baserrira heldu zela hitzetik hortzera bota zuen "kantoriak ai dia tabernan ta gizon haundi bati Txirrita deitzen diote." Etxean maiz kantatzen genuen bertso koxkor hau markesa aberats bati botea:

*Gazte-gaztetik izandu nuben / argintzan afiziyua  
beñere aprendiz ibilli gabe / ikasi ofiziyua.  
Materiala eman ezkeru / gañera despaziyua,  
denborarekin egingo nuke / markesan palaziyua.*

Ez da txarra hainbeste igeltsero duen herri batentzat.

Hurrengo bertsolari andana honetan Nikolas Iribarren "Xardia" (1865-...) dugu. Hernaniarra jaio arren oso gaztetan Goizuetara etorria eta Aitaborro baserriko Xexili Narbarterekin ezkondua. Arano eta Goizuetan oso entzutetsuak dira Xardia eta Txakurtxoren arteko bi zortziko txiki hauek, gure etxeko bazkalondoetan makina bat bider kantatuak:

*Esplikatzera nua biyotzeko penak  
entendituko dute aditzen daudenak.  
leno eun ta ogei ardi erriko onenak  
oain dozenaerdi bata ayek besteranak.*

Bertso au Xardiak kantatu zion Txakurtxori eta honek honela erantzun zion:

*Eznau ikaritzen gizonen orruak  
bajatzen ikusi ditut len ere arruak.  
Ilbeltzaren zazpiyan ziran enbarguak  
adio Xardiaren idi ta karruak.*

Garai beretsuan murgildurik, Euskal Pizkundea bete-betea zelarik eta bertsogintzan aurreneko txapelketak ospatzen ari zirelarik (bertsolari-guduak 1935-1936), militar anker batzuek gerra zibila piztu zuten, Errepublikako gobernu zilegia suntsitu nahian. Denok ondo baino hobeto dakigunez Araba eta Nafarroa zoritxarrez militarren alde jarri ziren eta Arano herria beste hainbeste. Hemengo mutilak edo kintoak gerratik etortzean, nik dakidanez, denak bizirik ailegatu ziren, ospatzeko bazkari bat eratu zuten eta era berean bi bertsolari punta-puntakoak ekarri zituzten: Zepai (Akilino Eizagirre), eta Uztapide (Manuel Olai-zola), bi eguneko jardunaldi erraldoia egin zezaten. Alazankua ze bertso sorta ederra botako zuten bi fenomeno horiek. Gure





Goizuetako Nicolas Iribarren "Xardia" bertsolaria argazkiaren erdi-erdian. Errax antzematen zaio zergatik deitzen zioten Xardia, eskuineko eskuan hiru hatz besterik ez baitzuten.

aitona mutiko koxkorra zela arbolera igota txorutzen egon zen haiei begira eta arreta handiz entzuten.

Handik urte batzuetara, urak beren onera etorri zirenean, Nafarroako lehenengo bertsolari txapelketa eratu zuten, eta aurreneko kanporaketa Lekunberrin jokatu zuten (1960-06-26). Aranotik ordezkari bat joan zen eta Goizuetatik hiru lagun alajaina: Andres Narbarte (Xalto), Batista Perurena (Karreto) eta Juan Perurena (Aiarra). Diaz de Ultzurrun mediku ospetsu eta euskaltzaleak eraman zituen lau bertsolariak taxi batean. Aranoarraren izena ez dut ipiniko berak horrelaxe nahi zuelako, baina berak botatako bi bertso jarriko ditut merezi dute eta. Hiru bertsolari agertzen dira ofizio emanda, bina bertso kantatzeko: Goikoetxea (ezkondua), Rekalde (alarguna) eta aranoarra (ezkongabea). Honatx gure herrikidearen bertsoak:

*Lagunak emen no Lekunberrin / Giputz mugatik torrita  
andregayaren zorian nabil / lenago gairikan ezta.  
neska polit bat gaur gabian / naiko nuke konkista,*

*lenbailen esan naiko nioke / mutil ona naizela eta.  
Onek konsejo neroni ere / jarririkan nago bero,  
ikusten det nik ezkondu eta / deskontent dala seguro;  
ni animatzen didanez onek / eznaiz sayatua gero,  
enaiz ezkondu eta segituz / alarguntzen egunero.*

Datozen sariketan Manuel Huizik (Enazti) parte hartuko zuen Arano aldetik. Gaur egunean ere gure aiton maitagarri honek bat-batean dotorezia handiz jarduten du bertsoak moldatzen. Honi segida emanez Xalto, Karreto eta Aiarra, hiruek ale ederrak dauzkate, zein baino zein dotoreago, baina aitzazekotan haxe aukeratuko nuke adibide gisa. Xalto eta Aierreren arteko buruz burukoan egindakoa. Aierrari "abiona" esaten zioten goitizenez eta Andresi "Xalto":

*... deskuido santun joaten bazera / abionan o motoan  
gure aitak arrapatuko zaitu / lendabiziko saltoan.  
(Xalto)*



Goian, Xabier Legarreta.  
Ezkerrean, Nafarroako bertsolarien  
Txapelketako kartela.

*Zere denboran egiña zera / amaika Xalto ta laster,  
batzutan zuzen ibiltzen zera / bestietan berriz oker;  
baño lenago nausi ziñena / orain jarri zera maxter,  
zakua artuta asi biarra / zera zu eskean laxter.  
(Aiarra)*

Gure egunetara bueltatuz, gaur egun Xabier Legarreta herriko bertsolaria da bertso munduan ordezkariarik oparoena. Oraindik orain jotake ibili da langintza honetan, Nafarroako txapelketetan parte hartuz, bertso saioretan arituz, bertso afaritan ere, eta abar luxe bat, bere sariak ere eskuratuaz. Gogoan dut Unai Agirrerekin batera zer jardunaldi ederra eman ziguten udaletxeko ganbaran, Enazti baserria gaitzat hartuta, bertso drama zeritzotek. Buru belarri bertso munduan ibili da Xabier, beti maila oso ona emanda.

Bukatzeko, gogoratuko dugu azkeneko Euskal Herriko bertsolari txapelketan goiko puntan jardundako bertsolari batzuek (M. Lujanbio, A. Mendiluze, H. Rezola, U. Agirre...) entrenalekutat Aranoko San Roke elkartearen zutela, hitz neurtuen kiroldegia alegia, ondo preparatuta edo gertututa joateko finalera. Entzutekoak izango ziren neska mutiko horien ahapaldiak arranopola!!

*Bertsozko kontuetan / Arano aurrenaleztabil errena  
bertsolari zerrenda / on ta jatorrena.  
Kankarro ta Enazti / Xabier da urrena,  
bertsua lasai dabil / gurian barrena,  
usariyo ez galtzia / litzake ederrena.*

• Jose Iñazio Salaberria





# Arano tesi batean: Mitoak eta ohiturak



Aballarri.

**Tesia, Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera, “doktoregoa lortzeko aurkezten den ikerketa lana” da. Tesiaren egileak epaimahai baten aurrean aurkezten du eta defendatzen bere lana. Hemen kontuan hartzen dudana tesia 2018ko MIAXIRIAN aipatu nuena bera da: *Urumeako Zilegimendietako Toponimia*. Tesiaren egilea: Luis Mari Zaldúa Etxabe jauna. Tesi horretan aipatzen dira Aranorekin zerikusia duten mito eta ohitura batzuk: horietaz ariko naiz hemen.**

## 1. Mitoak

Munduaren sorrerari buruz ezer gutxi aurkitu omen du autoreak. Informazio gehiago izan du eskuratzerik ikerketaren esparruan, Urumeako Zilegimendietan alegia, aurki daitezkeen harriztar edo harkaitzen jatorriaren gainean. Bost dira, nonbait, Sansonek (edo jentilek nahiz basajaunek) jaurtitako harri puska handiak: *Aballarri*

eta *Arrizabal* Urnietan eta *Arriuztuna*, *Txerritoki* eta *Mandarri* Hernanin. Bost jaurtitaketa horietatik lauren helburua Arano zen. Nire galdera da zergatik zen Arano jaurtitaketen jomuga, baina horretaz ez da deus ere esaten tesian. Inguruko herriak baino txikiagoa delako ote zen? Jaurtiketek zergatik huts egin zuten, bai, hori esaten da. Horren arrazoia jaurtizailea abere goro-

tzetan irristatzea izan zen beti. *Arriuztuna* harriztarraren jomuga zein zen ez omen da ezagutzen; “habaila”<sup>1</sup> nola zegoen egina, bai, ezaguna da: bi zuhaitz okertuta zegoen egina.

<sup>1</sup> Habaila: “harriak jaurtitzeko arma, eskuaz birarazten den larruzko uhal batek osatua” (Euskaltzaindiaren Hiztegia).



Ongien ezagutzen den kontakizuna *Aballarri* delakoaren jatorriari dagokiona da. Hiru aldaera eskaintzen ditu tesiaren egileak: lehenbiziko biak Barandiaranek bilduak eta hirugarrena Bartolome Urangari entzuna.

Bada Urnietan harkaitz bat Aballarri (habaila harria) deitua. Aranoko plazan gizon eta emakume sail handi bat dantzan ongi pasatzen ari zen batean, Sansonek harkaitz bat jaurtiz Buruntza (sic) menditik haiek hiltzea erabaki zuen. Horretarako, habaila bat egin zuen sahats-azalarekin. Harkaitza jaurtitzerakoan, irristatu egin zen behi gorotzean eta ezin izan zion eman lortu nahi zuena lortzeko bieharen adina indar; horrela, orain dagoen tokiraino bakarrik bota ahal izan zuen: Aballarri harkaitza da. *Jatorrizkotik euskaratua.*

Aballarri Urnietako Mantale mendian dagoen harkaitz baten izena da. Izen horrek "habaila harria" esan nahi du eta ustea da harkaitza Sansonek jaurti zuela habailaz Buruntza menditik, horrela Aranoko plazan dantzan ari zen jendea hil nahian. Hura botatzeko unean irristatu egin zen behi gorotzean eta horregatik harria ez zen erdibideraino (baizik?) iritsi. *Jatorrizkotik euskaratua.*

[esana, esana, sansonek botaementzun oi aano puskatu biartzulata, azkortetik saatsazalakin/ saatsazala eten da, bi aldetako esaera a/ batzuk, anka estu, bei gootzian irristatu zalako/ besteatzuk berriz saatsazala eten zitzayolako birian geatu, esaera]. [esana, esana, Sansonek bota omen zuen hori Arano puskatu behar zuela eta, azkortetik (?) sahats-azalarekin/sahatsa-azala eten da, bi aldetako esaera da / batzuek, hanka ???, behi gorotzean irristatu zelako / beste batzuek, berriz, sahats-azala eten zitzaiolako, bidean geratu, esaera] *Ulergarriago horrela?*

Beste mito bat ere kontaktzen da tesian Aranorekin zerikusia duena eta bi mendiaren izenei dagokiena. Elduainerreka eta Urumea arteko mendiak banatu behar izan zirenean, honela egitea erabaki omen zen: gauerdian, Berastegitik amona bat aterako zen eta Aranotik beste bat eta topo egin zuten lekuan jarriko zuten mugarrira.



Azeriak ehizatzea saritu egiten zen orain dela gutxi arte.

Berastegikoa, bai, jarritako orduan abiatu omen zen; Aranokoa, berriz, ez, ahaztu egin baitzen eta lo gelditu. Pila bat ibili ondoren, harrirtuta zegoen Berastegikoa Aranokoa ageri ez zelako. ETZELARA iritsi zenean, Aranoko amonarik ez zela esan zuen. Aurrera jarraitu zuen eta, UNAMUNORA iritsi zenean, Aranoko amona ikusi zuen eta esan zuen: hona amona. Beno, bada, horregatik omen dituzte izen horiek bi mendiek. Aranoko amona, gosaltzeko astirik hartu gabe, estu eta larri zetorren, gaztaina batzuk eskuan zituela. Elkarrekin topo egin zutenean, Berastegikoak pentsatu zuen Berastegik mendi gehiegi izango zituela eta prest agertu zen ETZELARAINO itzultzeko Aranokoaren gaztainen truke. Hori omen da muga orain toki horretan egoteko arrazoia.

## 2. Ohiturak

San Rokerekin zerikusia duten ohiturak aipatzen dira aurrena: San Roke omen zen Urumeako Zilegimendietako artzaintzat artaldean zaindari nagusia, haren ermita Aranon dagoela ere esaten da, santuaren babesa lortzeko beharrezkoa zela San Roke egunean Aranoko ermitara joatea eta meza entzun eta meza-dirua ematea. San Rokek garitxak (Euskaltzaindiaren arabera "garatxoak") sendatzeko ahalmena duela ere gogoratzen da; horretarako zer egin behar den ere bai: txanpon batekin garatxoa igurtzi eta txanpona beste norbaiti eman ermitan bota dezan.

Etxe, zelai, soro eta sagastietan erramuz eta elorri zuriz egindako gurutzetxoak jartzeko ohituraz ere hitz egiten da tesian; tximistatik eta harritik babestea da gurutzetxoaren helburua. Beste ohitura bat hor aipatzen den San Joan egunean ateetan lizar-adarrak jartzeko ohitura da, oraindik ere irauten duena. Bestalde, garai batean apaizak (ez, ordea, bakarrik, meza-laguntzaile nintzela laguntzen bainion nik, berak eskatuta) baserriak eta lurrak bedeinkatzen zituen banan-banan. Lan horren ordaina oilasko bat izaten omen zen.

Artzainen etsaiez ere hitz egiten du autoreak, otsoez eta azeriez. Artaldeak otsoetatik babesteko artzanorak (edo ardi-txakurrak) erabiltzen omen zituzten. Azeriei dagokienez, asko ugaritu direla orain esaten da eta azeria ehizatzea saritu egiten dela orain dela gutxi arte.

Denbora-pasa edo jolasen artean, artzainen gogokoena pilotata eta palanka omen ziren. Pilotan aritzeko tokien izena *pelotasoroak* omen zen. Palankan aritzeko lekuei dagokienez, *palankalekuak* ez omen dira erabat galdu.

Dantzalekuak ere aipatzen dira tesian. Dantzaleku nagusiak Urnietako *Txusaka* eta Hernaniko *Ereñotzu* ziren, nonbait. Bola-jokoa eta zinta-lasterketak ere ospatzen omen ziren.

Azkenik, heriotza dela eta, doluari Urnietan "probu" eta Aranon "progu" esaten zitzaiola esaten zaigu.

## Aranoko berriemaileen zerrenda

(izenak tesian ematen diren bezala)

- Pedro Maria Ansa, Ezkerraneko borda, langilea, 1944, (Ezk. b.).
- Manuel Huizi, EREÑOTZU (ENAZTI), basozaina, 1932, (En.).
- Antonio Izagirre, ASKATSU, nekazaria, 1928, (Aska.).
- Jose Maria Legarreta, MAIRTZENA, makina-zaina, 1912, (Maer.).
- Fermin Loiarde, langilea, 1919, (An. 2)
- Mikel Loiarde, Larrearen borda, (Altzaundegiko borda), nekazaria, 1926, (Larr. b.).
- Aurora Perurena, Txomiñenea, etxeandrea, 1956, (Ar. 1).
- Santiago Zabala, LORENTXOBORDAKO BORDA, langilea, 1942, (Lor. b.).
- Maria Zabala, Arano, (LARRATXURI), etxeandrea, 1928, (Ara. 2).

# Aranoarren izenak

**U**rteen joan-etorriak gauza asko aldatzen ditu: ohiturak, lanbideak, paisaia, harremanak... Baita izenak ere. Gure izenez ari gara, pertsonon izenez. Izan ere, gure aitona-amonon edo gure gurasoen izenez oroitzea besterik ez dago, gauzak nola aldatu diren ikusteko.

Garai bateko Calisto, Maximino, Marcelina eta gisakoak ez ditugu gaur egungo haurren artean ikusiko. Gaur egun, inguru honetan behintzat, izen euskaldunak jartzea da joerarik ohikoena. Euskal izenak eta, normalean, labur samarrak, batez ere garai bateko izen konposatuekin alderatuta.

Izen erdaldunak zituzten, esate baterako, XX. mendearen zatirik handienean Aranon jaiotakoek. Horixe izan zen, jakina, Euskal Herri osoko joera. Garai batean, gainera, beste edozein aukera debekatua eta jazarria izan zen.

Hainbat herritan hizkuntza ia bakarra euskara izan zenean ere, arrazoi sozial, erlijioso, kultural eta ekonomiko konplexuengatik, seme-alabei arrotza zen hizkuntza jartzen zitzaizkien izenak.

Joera hori nabarmen aldatu zen 80. hamarkadatik aurrera. Ordura arteko ohiko izenen ordean bestelakoak hasi ziren jartzen, eta gaur egun izen euskaldunak jartzeko joera horri eusten zaio, alderdi horretan herriko hizkuntza nagusiarekin eta ohikoarekin bat eginez. Aldaketa, nolahi ere, eta euskarazko izenen presentzia, 60. hamarkadan bertan hasi zen. Erregistroan jasotako datu hauetan aurkitu dugun lehendabizikoa *María Aranzazu* da, 1963an jaioa. 1965ean *María Edurne* izena agertzen da, 1965ean *María Iciar* eta 1968an *Miren Coro*. Aldaketaren lehendabiziko zantzuak. Gero, 1970. hamarkadan, euskarazko gehiago hasi ziren agertzen eta, esan bezala, 80. hamarkadatik aurrera izenak oro har euskaldunak dira.

Erreportaje honetarako udaletxean dauden erregistro liburuetara jo dugu, eta liburu horietan dauden izenak zein diren begiratu dugu. Ez ditugu XX. mendeko izen guztiak jaso, baina bai urte askotakoak, eta lagin esanguratsu bat jaso dugu.

Garai ezberdinetako izenak jaso ditugu, beraz, hainbat urtetakoak, eta horiekin ondoko taulak osatu ditugu, aldaketa ikus dadin, eta atzoko eta gaurko aranoarren

LETRA <i>A</i>			
Número	APELLIDOS		NOMBRES
	PATERNO	MATERNO	
12	<i>Aizcorbe</i>	<i>Iturmundi</i>	<i>Eugenia</i>
1	<i>albistur</i>	<i>Biscandia</i>	<i>Miguel Aquasio</i>
2	<i>albistur</i>	<i>Biscandia</i>	<i>Rufino</i>
4	<i>albistur</i>	<i>Biscandia</i>	<i>Josefa</i>
1	<i>Almandos</i>	<i>Ansa</i>	<i>María Paulina</i>
6	<i>Almandos</i>	<i>Huici</i>	<i>Juan</i>
13	<i>Almandos</i>	<i>Huici</i>	<i>Martin José</i>
16	<i>Alsuri</i>	<i>Zabala</i>	<i>José Joaquín</i>
14	<i>Alsuri</i>	<i>Zabala</i>	<i>María Agustina</i>
4	<i>Ansa</i>	<i>Almandos</i>	<i>Mario Feliciano</i>
11	<i>Ansa</i>	<i>Almandos</i>	<i>María Fausta</i>
15	<i>Ansa</i>	<i>Almandos</i>	<i>María Cristina</i>
7	<i>Ansa</i>	<i>Zabala</i>	<i>Anastasio</i>
2	<i>Ansa</i>	<i>Zabala</i>	<i>José Antonio</i>
2	<i>Ansa</i>	<i>Zabala</i>	<i>Martin Baimon</i>
7	<i>Apecechea</i>	<i>Zubiri</i>	<i>Juana Bautista</i>
4	<i>Apecechea</i>	<i>Zubiri</i>	<i>Rufino</i>
3	<i>Apecechea</i>	<i>Zubiri</i>	<i>Nicolas</i>
8	<i>Apecechea</i>	<i>Zubiri</i>	<i>José Agustín</i>
5	<i>Apecechea</i>	<i>Zubiri</i>	<i>José Leon</i>

Aranoko udaletxeko erregistro-liburu bateko orrialde bat.

izenak nolakoak ziren eta diren ikus dadin.

Aipatu behar da, nolahi ere, 70. hamarkadan, arazo administratibo batzuk tarteko, herriko ume askok ez zutela bertan erregistratzeko aukerarik izan eta haien izenak ez daudela erregistroan jasota. Beste kasuren batean, berriz, erregistro liburuan idatzitakoa ulertu eta interpretatzeko zailtasunen bat izan dugu, baina oro har ongi samar irakur daitezke eta izenak bertan zeuden bezala jaso ditugu.

Bertan erregistratu ez baina bertan jaiotakoak diren edo bertan bizi diren umeak

sartzen saiatu gara, erregistroan dauden datuak osatuz.

Oro har, taula hauetan aranoarren izenak zein izan diren eta zein ziren ongi samar islatzen dela uste dugu. Tartean eta nahi gabe izenen batek ihes egin baldin badigu, edo irakurtzeko zailtasunen ondorioz baten bat gaizki idatzita agertu bada, barkamena eskatzen diogu izen horren jabea den lagunari.

Izenak, esan bezala, hamarkadaka antolatuta emanen ditugu.

• **Aranoko Udaleko euskara zerbitzua**



**1901-1909 urte bitarteko izenak**

María Josefa	María Sotera	Francisco Antonio	Juan Esteban	Juan María
María Concepción	María Dolores	Juana Bautista	Tomas	Josefa Ignacia
José María	Calisto	María	José Manuel	Maximino
Pedro José	Lorenzo	Domingo	María Ignacia	Juan
Martín José	Marcelina	Josefa	Joaquín	Feliciano
Rufino	Francisca	Juliana Josefa	María Felician	María Jacinta
Francisco Macario	Juana	María Asunción	Irene	Miguel Ignacio
Anastasia	Nicolás	Dionisia	María Luisa	Eugenia
María Fausta	José Bautista	Mariano	José Martín	Benigna Marciala
Eduvigis	Victoria	Miguel	María Agustina	María Cristina
José Antonio	José Agustín	Lino	Juana María	Martín Raimundo
Juana Agripina	Antonia Ildefonsa	María Ambrosia	Martín	María Ramona
María Mercedes	Antonia	Isabel	María Paulina	José Joaquín
José León	Ramón	Eugenio		

**1930-1939 urte bitarteko izenak**

María Milagros	Ramón	Felix	Epifanía	Juana
Francisca	Teófila	Luis	María Jesusa	Natividad
Josefa	María Inés	Victor	Francisco	Antonio
Asunción	Jesús	José Ramón	María del Pilar	Rosa María
Manuel	José Manuel	José María	José	José Lorenzo
José Luis	Juana Antonia	María Juana	María Petra	Nicolás
Francisco	Laureana	Leandro Cruz	María Cristina	Juana María
Valentín	Josefina	Juan Bautista	Delia	Juan Antonio
Felisa	José María	Marina	María Asunción	Eduardo
María Jesús	José	María Pilar	Jesús	María Josefa
Jesusa	María Dolores	María Carmen	Martín Antonio	José Joaquín
José Luis	María Lourdes	Juan Bautista	Domingo	José Antonio
María Cristina	José Marcos			

**1960-1969 urte bitarteko izenak**

José María	Miguel	Miguel María	José Juan	M <sup>a</sup> Lourdes
María Begoña	Sofía M <sup>a</sup> de la Concepción	María Rosario	José Luis	María del Pilar
Paulino	Juan Carlos	María Aranzazu	Francisco de Javier	Ramón
Juan Manuel	José Manuel	María Cristina	Eduardo	Felisa
Antonio	María Iciar	María Juana	María Edurne	Ana Isabel
Miren Coro	María Begoña			

**1970-1979 urte bitarteko izenak**

María Begoña	Francisco	Jesús María	Iñigo	María Jesús
María Teresa	Angel María	David	Miren Gurutxe	Andone
María Concepción	María Pilar	Oscar	Milagros	Francisco Javier
Eztebe	Javier	Arantzazu	María Lourdes	Maitane

**1980-1989 urte bitarteko izenak**

Aranzazu	Ainhoa	Gorka	Iñaki	Jon
Maidier	Maitane	Josu	Ibon	


**1990-1999 urte bitarteko izenak**

Nagore	Miren
--------	-------

**2000-2020 urte bitarteko izenak**

Ander	Unai	Eneritz	Naroa	Intza	Gexan
Irati	Irune	Haizea	Leire	Iraia	Xenki
Oier	Maddi	Araitz	Eñaut	Mañel	Luka
Hodei	Nahia	Adei	Enara	Mikel	Martina
Unai	Jokin	Oihan	Azahara	Lazaro	María
Uxue	Iker	Aiur	Aner	Sustrai	

# Bidez bide



**B**ide bat bukatzen eta beste bat hasten zen. "Burbuna eta Etsayak" dokumentalaren azken pausoak nola egin erabakitzeak bilduak ginen Ereñotzuko Irrintzi tabernan afari-merienda baten inguruan (Eñaut Agirre, Iñaki Sanz, Joxan Ruiz eta ni). Iñaki Sanz galdezka egona zen Pikoaga baserriko Juanito Galdeanori, garai bateko bide zaharren berri jakiteko. Juanitok esan zionez, herri-bide bat bazen Pikoagaren ondoan, Hernanitik etorrita bertako frontoia pasa eta eskubira. Orain bi panel daude bazterrean oinezkoentzat ibilbideak proposatzen, baina berez herri-bidea zela, handik Pagoagara joaten zena, eta gero Aranora.

Hortxe galdera: nondik nora ote zen bidea, errepidea egin aurretik Goizuetatik Hernanira norbaitek joan nahi bazuen? Nolako ote zen? Estua edo zabala? Oinezkoentzat bakarrik? Bide bat baino gehiago

ote ziren? Galdera batek beste hainbatetara eramaten ninduen, bide batek beste askotara eramaten duen bezala.

Iñaki Sanz eta Jose Javier Echeverria goizuetarra bide horren aurkikuntzan ibiliak dira geroztik. Ni ere ibili naiz neure kabuz, gertukoenei galdezka, mapa zaharrak begiratzen, oinez ere ibilia naiz inguruetan, eta baita Hernaniko eta Aranoko udaletako artxiboetan ere, bide horren berri ematen duten dokumentuen bila. Eskertu behar dut Txuso Gomez emandako laguntzagatik, eta baita Iñaki eta Jose Jabier ere, beraien lana erakustearren. Haiiek esaten duten bezala: "Urumeako oinezko bide zaharraren bilaketak, beraz, balio dezala bertako herritarrei euren iragana erakusteko ez ezik, Urumea bailararen etorkizunerako ibilbidean, pausuz pausu bide berri bat irekitzeko ere". Hementxe daukazue proposatzen duten bidea:

Bide hau aurkitzeko lanean iturri ezberdinetara jo dut. Iturri horiek, berriz, lehen esan bezala, beste adar batzuetara eraman izan naute. Hurrengo lerroetan beste adar horien berri ematera noa. Iturri horietako bat Aranoko Udaleko artxiboak, "bideak" hitzaren inguruan hainbat dokumentu azaldu zitzaizkidan. Horieta-ko bat gaurko Kaxetatik herrira doan NA-4016 errepidearen nondik norakoak dira. 1892. urtean Aranoko Udalak Nafarroako Diputazioari egin zizkion eskaera pare bat daude. Alde batetik, amaitu gabeko Leitza eta Goizueta lotzeko errepidea ahal zen neurrian eraikitzen bukatzea. **[1]**

Beste eskaera, berriz, Hernani - Goizuetako errepidearekin bat egingo zuen errepide adar bat eraikitzea. **[2]**

Errepide adar honen inguruan hainbat dokumentu aurkitu ditut, baina ez dut aurkitu noiz ireki zen azaltzen duenik.



Esta sin concluir la de Leiza á Goizueta que pondría en comunicación directa á Pasajes con Pamplona, y que, además de favorecer grandemente la defensa del territorio, sería utilísima para el comercio, para la riqueza agrícola del país y para la riqueza minera que va ahora formándose y de la que se puede esperar mucho si desaparecen los obstáculos que hoy existen para el transporte.

[1] (Signatura 043. Kodea 3.9.2.)

(...está sin concluir la de Leiza á Goizueta que pondrá en comunicación directa á Pasajes con Pamplona y que, además de favorecer grandemente la defensa del territorio, sería utilísima para el comercio, para la riqueza agrícola del país y para la riqueza minera que va ahora formándose y de la que se puede esperar mucho si desaparecen los obstáculos que hoy existen para el transporte...)

Tampoco le es menos necesaria é importante á este pueblo la construcción de un ramal de carretera, aunque sea estrecha, que le una con la construida de Hernani á Goizueta, la cual para por jurisdicción de este pueblo á distancia del mismo de unos dos kilómetros, poco mas ó menos, sin que pueda utilizarla como debiera, á pesar de tenerla tan próxima y de cuya construcción podría reportar grandes beneficios. Y en atención á lo expuesto,

[2] (Signatura 043. Kodea 3.9.2.)

(... Tampoco le es menos necesaria é importante á este pueblo la construcción de un ramal de carretera, aunque sea estrecha, que le una con la construida de Hernani á Goizueta, la cual para por jurisdicción de este pueblo á distancia del mismo de unos dos kilómetros, poco mas o menos, sin que pueda utilizarla como debiera, á pesar de tenerla tan próxima y de construirla podría reportar grandes beneficios...)

1905ekoa da azkeneko dokumentua, non errepide horren azken zatiaren gorabeherak azaltzen baitira. Beraz, data horren ondoren behar du izan irekia errepideak.

Artxibo sorta horretan Suro eta Aiztegi (Aizatei) bideen eraiuntzaren 1907ko dokumentuak daude. Horietan, bi bideak egiteko enkantearen berri azaltzen da; ohikoa zen bezala, pregoi eta kanpai jotzearekin iragartzen zen herri honetan. Suroko bide hau (*Sarovezarco lepoa*) Xauxaralotzen zen egin berria zen errepidearekin. Bide estu samarra izango zen, ze 1973ko dokumentu batean azaltzen denez, Nafarroako Diputazioak herrigunetik kanpora aurkitzen ziren etxeetarako bideen eraiuntza eta finantzaketa eskaintzaren barruan, Aranoko Udalak Suroko bidea eskatzen du. Arrazoi askoren artean honako hau adierazten du: [3]

1898ko beste dokumenu bat ere azaltzen da, goiko herritik Surora zihoan behereko bidearen konpoketa lanen berri ematen duena. Nork ez du igaro harrizko bide hori? Pagoen itzalpean gurdien gurpilek harriaren denbora luzean margoturiko arrastoak han daude. Dokumentu honek esaten duen bezala, erabili zen materiala, harria, ez zen oso urrutitik ekarria: [4]

1907ko Aizateiko bidearen dokumentuan, errepide probintzialarekin lotzen

Por otra parte, la población infantil de Arano ha sido escolarizada en Goizueta, estando en funcionamiento el servicio de transporte escolar que recoge a los niños del pueblo de Arano y del Barrio de Bentaverri para ser trasladados a la Escuela Comarcal de Goizueta. Los niños del Barrio "Suro" tienen que valerse de sus propios medios para salir a la carretera provincial, por no existir camino accesible a los vehículos de transporte escolar que realizan el servicio normal al pueblo de Arano y Barrio de Bentaverri.

[3] (Signatura 043. Kodea 3.9.2.)

El dicho camino mide desde la loma de Chara hasta la cantera de piedra que se halla en el mismo camino, 173 metros de longitud, y 2 metros de anchura. Desde dicha cantera

[4] (Signatura 043. Kodea 3.9.2.)

(... El dicho camino mide desde la loma de Chara hasta la cantera de piedra que se halla en el mismo camino, 173 metros de longitud y 2 metros de anchura...)

zen puntua "castañal de Echeverría" deitzen zela adierazten du. Hemendik Aizateira bitartean, "Icaz - zuloa", "Eguibelceco - erreca" eta "Mariagarcinecobide gurutzea" tokien izenak azaltzen dira, eta bertan egin beharreko lanen nondik norakoak zehazten dira.

Bide honen berri beste iturri batetik ere jaso nuen. Hain zuzen, Leontxo-bordako

Santi Zabalak emanda. Hamaiketako baten inguruan bildu ginen Santi bera, Jaber Ansa, nire aita eta ni. Aitaren aspaldiko laguna zela eta, bisita egiteko asmoz, garai bateko kontuez aritu ginen hizketa ederrean, eta bilatzen ari ginen bide horri buruz galdetu nion Santiri.

- Aranotik norbaitek Hernania jun behar bazun gurdi batekin, nola itten zun?





- Nik etzekit joten baziane. Guk, karretera jeneale, hemendik *Ezkerran borda* pasa... geo *Maertzeneko borda* zio, hor borda tiki bat, oaindik an zio, gurdi-bidia, haren gaikaldetik pasa... geo *Aizatei*, geo handik hurrengo *Ezkile*; *Ezkile* du izena horreko ze horrek, an erreka txoko bat baziok ba, *Aizateitik* aurrea joan ta hauzko zokuan *Ezkile*. Ta handik aurrea joan, hura karretera ateatzeyun bidi hura, karretera! ta karretera zabaldu zuenian, in tzuen makinak kriston koska kendu, ta in tzuen eskallera egurrezkuak jarri, haik usteldu zian ta oan batez. Hoi paso jeneala hoi zen, gurdia jotzen zen hara, geo handik *Aoñe*... hori zabaldu baño lenuo nik karretera beti ezautut.

Beste momentu batean:

- Goizuetako batek Hernania jun behar bazun, ze bide itten zun?
- *Aano!* *Aoñotikan*... oane bidexiorra hor eongok, zea... *Aoñoko* aldapeta esate ziou, bueltaka, bueltaka, bueltaka bidia ta hora *Aizateira* ateatzeuk, *Aizatei* hona ez, hauntxio, han zio, bidia, beti gora ateatzeuk bidexior bat, koka inguru hortan.
- Ta *Abañotik* aurrea?
- *Aoñetik* aurrea yun, *Aoñen* etxian gaikaldetik yun bidia. Ta hortik *Telleira* ateatzen yun, ta handik aurrea... *Naparraldetik* aurrea, hor(e) *Pauan* gaikaldetik ote zen, *Pikuan* hoitan(e), ta hor *Olazarre*. *Olazar* gaikaldetik pasatzen izan behar zin bidexiorra, ta handik aurre, *Bezkitta* ta hoik, hortik izango yun pasua, hortik *Latse*.

Nire aitak bazuen gogoan *Txirritaren bertso* bat, nonbait etxean ez zen giro izango eta:

*Jaunak gure etxi hontan  
ez dek atsegin  
udaberriya badator eta  
nik pentsatuko det zer egin  
atxurra eta pala hartuta  
Aranoko Tellerin  
aberastuko ez banaize  
begi bistan aldegin.*

*Txirrita* bera ere ibiliko zen ba, aurkitzen ari ginen bide zaharretik.

Bideak juntatzeko zubiak behar izaten dira. Banuen duda bat aspalditik, eta horixe egin nion galdera *Santiri*:

- *Abañoko* zubia? Hor beste zubi baten baseak edo badaude ba...
- *Kamionak* pasatzen ttun hor! *Errentaikun* hor ze mendik! *Errentaikun* ze egur pilla ateatzen zian, irikin gotti-betti, zubiyan kamionak pasatzen ttun. Hoi ez dakit zenbat urte dian... 60-ta... ni mutil-koxkorra. *Algorrikua*, *Aparraingua*, hoi denak zubi eleantiak ttun, denak eman zizkin. Oain duk 40 urte kabliakin pasez, karro zar bat ta kablia txirrillakin ti, ti, ti!... pasa hauzko ixkiñe. Ta haurre (*Abañokoa*) kabliakin, al tzen bezela haure, hoik zubi eleantiak ttun.
- *Abañoko* zubia noiz eroi zen ba?
- Hoi urak eman zun, oktubre... hoi ta *Algorrikua*, dena batian. Uholdiak! jesukriston uholdiak ittun, *Latseku* ere eman zin.
- Ta *Aolakua*?
- *Aolakua*... enak akortzen, etzekit hoi, hoi geoztik eroi yun. Bestia *Errotakua*,

hoi zutik zio, hoik ez dit uste eman zittunik... 70 bat ibal izango ttuk... ta oktubria yun, urriya!

*Bidexior*, *mandabide*, *bide xenda*, *gurdibide*... eta zenbat istorio gehiago. Aolatik Ipiñarrera bidezidorra besterik ez zen, Ipiñartik Aolako galbayota, handik *Xaxikoetxera* eta hortik *Pagoagara bidexiorra*. Bestea *Aranotik* *Etzelara* egindako pista, dena *pikotxoiarekin* egina; *Aranotik* *Maitxolaraino*, herriko jendeak; eta handik aurrera, santanderinoek...

Hiru ordu pasa genituen hizketaldi errean, solas patxadatsu eta jakinduriaz beteriko hitzez betea. Zenbat ikastekoak garen gure aurrekoek daukaten naturarekiko eta bizitzarekiko ikuspuntutik. Erdia ikastera ailegatuko bagina *biñipin*. Herri honetan bizi naizenetik, makina bat bider ibili izan naiz hemengo bideetan, eta baita bidetik aterata ere. Zenbat txoko berri ikusiz eta ikasiz. Adibidez, esandako *Goiko Herritik Surora* doan harrizko gurdibidea, *Mailatik* *Txarara* doana, nahiz eta orain ibiltzeko zaila egon, *Ostakutzera* doan gurdibide elegantea, zenbat arropa eraman ote dira garbitzera *Goiko Herritik Larriturra* joateko estartatik, errotarako bidean zubi ederra pasa behar, eta gertu *Lamosin*, *Aolako* zubia ere hor; ze garrantzitsua den herriarentzat. *Xauxarko* lepotik *Kaxetara* doan bidezidorra; eta *Bordaxartatik* aurrera doan bidea; *Oraunetik* *Errekalkora* hegiz hegi, hain ugari ditugun mairu-baratze eta tumulu artean paseo ederra... Eta falta zaizkidanak ezagutzeko eta disfrutatzeko bidean nago eta zaudete.

• **Jon Mari Beasain**



# Helpbidea

Gure herrian sakabanatuta dauden baserriak asko dira, eta larrialdi baten aurrean, Larrialdi Zerbitzuei baserri horiek aurkitzeko lana errazteko, zonaldeko Udalek, Nafarroako Gobernuak (Suhiltzaileak, Osasun Saila, Foruzaingoa, Babes Zibila eta Informatika) eta Tracasak, etxebizitza bakoitzarentzat Helpbidea izeneko identifikatzaile bat sortu zuten.

Helpbidea identifikatzailea baserri bakoitzean plaka batean itsatsita dago eta ez da denboran zehar aldatuko. Larrialdi zerbitzuek, nola ez, ezagutzen dute.



**Garrantzitsua:**


112ra deitzean, larrialdia duen etxearen Helpbidea zenbakia jakinarazi!

Hemen aurkituko dituzu herriko baserri guztien "Helpbidea" kode guztiak, larrialdia sufritzen ari den horren ordean, 112ra deitu beharko bazenu ere.

## Beheko Herri



Beheko Herri	
Almandozenea / Ansenea	16362
Artetxe	16413
Berdosta	16422
Estarta	16384
Etxeberri	16385
Gorokenea	16387
Lutzinea	16388
Martitzenea	16386
Martitxiki	16383
Martxa	16389
Mitzelenea	16423
Pitxi	16429



Arranbide Auzoa	
Arranbideko Benta	16473
Arranbideko Zentrala	16472

Benta Berri Aldea	
Abaño	16489
Argorri	(Errenteria)
Aroia	16488
Askatsu	16470

Benta Berri I	16431
Benta Berri II	16430
Enazti	180053
Etzabol	180841
Gure Ametsa	16381
Ipiñabar	180052
Irakurri Etxea	16419
Telleri	180046
Telleri Txiki	16428
Ugartretxena Zentrala (Errenteria)	

Bordabidea	
Antzosoroka Borda	180518
Burningo Borda	16460
Estarton Borda	180520
Mairizeneko Borda	180523
Maitxola	180521
San Roque	180057
Santutxa	180055
Txaran Borda	180517
Zumardi	180522


Latxe Auzoa	
Anteneko Txokea	180516
Borda Berri	180519
Ezkerran Borda	16485
Kallasa	180054
Larretxuri	16482
Leantxon Borda	16484
Liztorregi	16461
Sagargaste	16486
Santiagoren Borda	16467

Suro Auzoa	
Beltsola Borda	
Bardaxar	
Etxetxuri	
Gatzako Borda	
Gure Bordaxar	
Haltzegain	
Larrean Borda	
Mairtzako Borda	
Maisuneko Borda	
Martzeneko Borda	
Pago Borda	




# ORRANO

serri eta etxeak



## Goiko Herri



<b>ZOIA</b>	<b>Plazako Borda</b>	16448
16441	Tereseneko Borda	16443
16437	Txitxerreneko Borda	16447
16434	Txurdaingiko Borda	16443
16438	Xurrenako Borda	180051
16455	Zapotariko Borda	16459
180050		
16456		
16451		
16452		
16444		
180049		

<b>Xauxarko Lepo Aldea</b>		
Maila		16476
Martitxiki-borda		16477
Txara		16475
Txaroko Borda		180048
Xauxor		16474

<b>Goiko Herri</b>	
Almadozenea	16424
Aretzandui	16393
Bixargorri	16397
Biyoa	16418
Estartaberrri	16391
Etxeandui	16405
<b>Garako Soro</b>	<b>180639</b>
Gatzazenea	16417
Gure Ametsa	16399
Herriko Etxea	16404
Indoia	16401
Iturbide	16390
Itxandui	16403
Itxatxo	16395
Juan Dorosti	180525
Juanikenea	16398
Kanpe Santua	16425
Maisunea	16426
Martzenea	16408
Mixelenea	16392
Montabes	16409
Oloa	16411
Ongi Etorri	16414
Paulenea	16402
Pezoe / Luxanbide	16416
Perutxo	16412
Plaza	16415
Plazako Etxeberri	16421
San Martin Eliza	16407
Serone	16410
Txautxiki	16398
Txurdaing	16420
Xurrene Behea	16394
Zapotari	16406

# Arano, iruditán

Badakigu ongi aski Arano herri ederra dela, kokagune bikain batean dagoela eta aberastasun handi baten jabe dela. Iñigo Gambraren irudi hauek ideia hori berretsiko digute. Gure inguruan egindako argazkiak dira, eder askoak, edertasuna bilatzera oso urruti joan beharrik ez dugula gogorazten digutenak. Goza itzazue!



Turistarik ez denean, a zer bakea Urumean.



Paseoan gozatzeko, herria lotzen duen "astopista" bezalakorik ez dago.



Ederra da herritik abiatu eta Suro bistatzea!





Eskinosoa... Basoan sartu orduko entzuten dugu bere kantu zakarra, baina hala ere, gutxik dakite zein ederra den.



Zenbatak nahiko lukete holako diamanteekin lepoko eder bat egin!



Arreta pixka batekin, hainbeste sugandilen artean muskerrak ere topa ditzakegu.



Nork behar ditu orkideak, baratzean azak edukita.



Abentura ederra iratzeen artean ibiltzea.




Ematen dugun pausu txiki bakoitzean mundu bat uzten dugu atzean.



Arano. Hirurak bat? Zazpiak bat ala bat eta bakarra?





San Miel 1983.

# Lehen aldi haiek

**Ez da erraza izango ahazten 2020.urtea! Urte borobila zen zenbakiz, baina, osasunaren ikuspegitik, borobilak baino ertz gehiago izan ditu.**



Iraultza zahagi-dantzan: emakumeak erdira eta gaztetxoak plazarako bidean.

**U**rte honetan inauteriak ospatu ziren juxtu juxtu! Otsailaren 15ean izan ziren eta giro ederra egin zigun! Gutxi pentsatuko genuen egun hartan, dantza eta korneta soinuaren artean, beste festarik ez genuela izango urte guztian!

Festarik gabeko oroitzen dugun 1. urtea hau izango zen, bai nire gogoan behintzat! Eta pentsatzen jarri naiz, zenbatek eman izango ote duten beren lehen muxua herriko festetan... edo beren lehen parranda egin...

Herriko festetako programa eta paper zaharrak bilatu eta "lehen" aldi batzuk gogora ekartzea pentsatu dut!

Argazkiekin lagundu dit Mikel Ruizek eta, beraz, esker berezi bat berari, lanean hasi aurretik!

Eta hain zuzen ere, 1. SAN MARTIN eguna noiz berreskuratu genuen ekarriko dut gogora: 2006ean izan zen, eta Mikel Ruizen argazki zahar erakusketa izan zen antolatu genuen lehen saioa. Arantxa Ansak lagundu zion musika pianoaz jarriz, eta ondoren Ansa Ahizpak aritu ginen kantari udaletxe-ko ganbaran. Aurten ere talo eta gaztain jatea zeinek ez du faltan sumatu izango?

Urte batzuk lehenago, 2004ean, herriko festetan 1. FERIA antolatu genuen. Geroztik arrakasta izugarria izan duen ekitaldia

izaten da, eta beharbada festetako kuttunena, bai askorentzat behintzat!

1991.urte inguruan ANTZINAKO IBILGAILUEN 1. IGOERA antolatu zen. Bidean hamaiketako egin eta bazkaltzera herrira... Dudarik gabe, kolore eta soinu paregabea ematen zioten kotxe eta moto zahar haiek gure herriari!

1983an herriko elkartean 1. MUS TXAPELKETA antolatu zen! Geroztik, pentsa zenbat urtez antolatu izan den hutsik egin gabe... herritar askok eta kanpotik etorritako beste hainbatek parte hartzen duten txapelketa da eta segi dezala urte askoan hala izaten!





Lehendabiziko feria.



San Martinak.



San Roke 1999.

Atzerago joanez, 1979an egin zen 1. PLATER HAUSTE ("tiro al plato") LEHIAKETA, eta sari berezi bat izan omen zuen herriko lehena gelditu zenak ere!

10 urte atzerago joanda, 1969an TXIRRINDULARIEK 1. IGOERA egin zuten Aranora. Hainbat urtez egin zen eta sekulako jendetza dut gogoan, nire txikitako begietatik.

2001ean 1. PALA TXAPELKETAK jokatu ziren, bai emakume eta bai gizonezkoetan. Denborarekin, palaz gainera, eskuz ere jokatzen dute gizonezkoek. Aurretik hasita jokatzen dira finalurrekoak eta festetan finalaz gozatzeko aukera egoten da.

2012an, karpa jarri zen lehen aldiz, urte horren aurreko urteetan, Santioetan sekulako erasoak izan zirela-eta. Karparekin batera, 1. ARKUME JATEA aipatu behar dugu, herriko produktua erabiliz eta auzolan erraldoi batean prestatua. Eta 1. AFARI HERRIKOI eta autogestionatua ere karparen ideiarekin izan zen posible.

1990ean ikusi dut 1. aldiz GORRITIREN SHOWa deitzen zitzaiona herriko festen programetan. Azken urteetan eztabaida sortu da herrian eta, esango dugu, 2018an, Gorriti ez baina Arnoren zezenen ordez, ZIRKOA ekarri zela 1. aldiz, herriko umeek bozka eman eta hala erabaki ondoren.

Eta, umeekin jarraituz, inauterietako pare bat gertakaritara egin nahi nuke salto! 1990.hamarkada hasieran, orduko ume eta gaztetxoek karnabaletan PUSKA BILTZEN lehenengo aldiz ateratzeko pausoa eman zuten. Horrek ireki zituen erabat atea, baserriz baserriko bueltan edonor atera zedin. 2016ean, berriz, lehenengo aldiz UMEEK egin zuten ZAHAGI DANTZA oso-rik, erdiko bi pertsonaiak barne.

Garaiak aldatu egiten dira eta, umeen ekarpena bezalaxe, ezin ahaztu emakumeek egindakoak ere! 1977-78 inguruan atera omen ziren lehendabiziko emakumeak ZOMORRO jantzita puxka biltzera, eta 2012an lehenengo emakumeak ikusi genituen ZAHAGI DANTZAN!

Inauterietan ez dute antzik ondotik datozen ospakizunek, baina herrian oso kuttunak izan dira. San Migelen etorrera da bat. Ez dut asmatzerik izan noiz izan zen etorri zen lehen aldia, baina lortu ditudanen argazkien artean, Mikelen hau jarri gabe ez nuen gelditu nahi. Hor agertzen den jendea ikusiz gozatu duzuela iruditatu zait! 1983ko argazkia da nonbait, orain dela 37 urtekoa.

Bukatzeke, San Roke eguneko ospakizunari azkeneko tartea gorde nahi izan diot, izan ere, aurtun 50 urte beteko ziren festa berreskuratu zutela herritar batzuen artean. Kontuak atera! 1970ean ospatuko zela, hortaz, SAN ROKERA 1. ERROMERIA txistulari kuadrillarekin lagunduta!

Festak izango dira berriz, noiz eta nolakoak ez badakigu ere... Bitartean, lehen aldi berriak sortzen joango gara gure bizitzetan eta gure herrian!

• Ainhoa Ansa




# Itxialdia Aranoko haurren begietan

**E**zohiko urte honetan bizipen asko pilatu zaizkigu denoi, ziur asko gogoan ongi gordeta geldituko zaizkigunak. Denontzat izan da urte xeble eta arraroa, baita gure herriko umeentzat ere. Nola bizi izan duten, zer sentitu duten, nola eta zer egin duten egoera ezberdin eta zail hori gainditzeko...

Itxialdi garaian herriko umeei horri buruz galdetu genien, eta marrazki edo irudiren batekin momentua nola bizi zuten azaldu zezatela proposatu. Orrialde honetan jaso ditugun marrazkiak eta irudiak, umeek bizitutako horren isla edo erakusgarri xume bat dira. Irudimena izaten da haurren ezaugarrietako bat, baita egoera ezberdinetara egokitzeko gaitasuna ere. Irudi hauek ere, ziur asko, hori erakusten digute.

Adei Cueto, Mañel Segues eta Nahia Larrearen irudiak dituzue hemen. Eskerrik asko hiruei.



Aranoko frontoia gogoan. Adei Cueto



Etxe inguruan aspertzean zer. Adei Cueto






Nahia Larrea



Etxealdian ere gauza politikak. Nahia Larrea



Mañel Seguesen gutuna



# Gure baserrien etorkizuna azmartuz...

**Gure herria herri nekazaria eta abeltzaina izan da... eta gaur egun ere hala da! Ezin da esan, ia inor horretatik bakarrik bizi denik, baina garrantzia badu sektore honek, edo behintzat hala izan du orain arte.**

**B**elaunaldi arteko transmisioa lausoa izan dela esango nuke. Gure gurasoek ez ziguten baserria balioan jarri. Maitatzen erakutsi ziguten, noski, baina ez bizibide duin baten modura, beste edozein lan izan daitekeen bezala. "Zuek ikasi, egin karrera bat! hemendik (baserritik) ez dago bizimodua ateratzerik!" Eta Aranoko baserrietan jaiotako ia gazte gehienok halaxe egin genuen! Karrera edo moduluren bat ikasi, edo ikasi gabe ere, lan bat bilatzen saiatu. Baserriarekin zerikusirik ez zuen lan bat, noski.

Urteak aurrera eta, bizitzak, ohiturek, nahiek, modek, sentipenek... beren bidea

egiten dute eta, hara nola, baserriarekiko genuen sentimenduak ez du desagertzera egin! Gure gurasoek ez gintuzten, nonbait, hain gaizki bideratu! Baserriarekiko loturak badu zerbait... nahiz eta bertatik bizitzea oraindik salto handi xamarra dela iruditu, baserriak badu berezkoa duen erakarpen bat.

Gure herriaz, gure nekazariez, gure paisaiez... hizketan eta eztabaidan ari ginen batean, herrian nekazaritzaren garrantziaz jabetu eta hori berreskuratzeko ahalegina egin nahi genuenok "erresistentzia" ginela aipatu zen halako batean. "Azken mohikanoen" gisara, ia desagertzeaz zen bizimodu bat irauarazteko ahaleginetan genbiltzan

gutxiengo baten erreflexua ginela zioen norbaitek. Eta bai, hala izango da akaso!

Baina denak egiten du (eta egin behar ere bai), batzuetan, atzerako bidea, atzera egiteak zerbait galtzea esan nahi izan gabe! Atzera egiteak kasu honetan bizibide bat berreskuratzea eta erdigunean jartzea esan nahiko luke, elikadura, natura,... gure herria erdigunean jartzea.

Bizimodu baten ametsa, paisaia honi mi-resmena, izaera batenganako errespetua, kultura baten balioaz jabetzea... hori guztia babestea erresistentzia izatea bada, gora herriko baserritarrak eta gora erresistentzia!

• **Alhona Ansa**

**"Zer da baserria" galderari honakoa erantzun diote Aranoko baserritar gazte (bai, gazte deituko diogu geure buruari) hauek:**

**Josu Sarobe Olaetxea** (35 urte)

PLAZAKO BORDAKO SEMEA

"Neretzako baserria naturaren parte sentitzeko modu bat da, ekosistema zoragarri baten parte izatea eta baita euskararen txoko berezi baten parte bat."

Argazkian Josu Sarobe Olaetxea, fardoak egiten.





## Haritz Azurmendi Lopetegi

(45 urte)

AROLA BASERRIA

“Bizi proiektu baten oinarri.

Gure hizkuntza, kulturen.... etxalde. Etorkizunaren kokaleku!”

Baratzeako jana “konponsta” sukaldatzen (fermentazio bidez). Lehengaiak; ximaurra, orbela, ikatza, harri-irinak...



## Ainhoa Ansa Zugarramurdi (40 urte)

BELTSOKO BORDAKO ALABA

“Baserría bizitzeko modu bat da, gertukoa, bertakoa, gogorra... xamurra aldi berean! Paketsua, errespetuzkoa,... errotua. Baserría oraina da, atzera begiratzen ohitua dago, bai, baina aurrera egiten ikasia da. Baserría “gu” da. Elkarrekin egina denean piztu egiten da, indartu! Baserría ematea da, benetako altxorak elkarbanatzea. Baserría etxea da, baina ez da etxe hutsa. Gurasoei begira ikasia dut hau...”

Argazkian Ainhoa Ansa Zugarramurdi, semeekin, baratza prestatzen eta zaintza lanetan.



## Jabier Klaber Oiarbide (43 urte)

TERESENEKO BORDAKO SEMEA

“Baserría? Nere aurreneko oroitzapenak hortxe hasten dira. 5 anai arreba, gurasoak, amona xarra eta animalia pila: zerriak, oiloak, ardiak, behiak, zakurrak eta abar. Animalia hauek bizia dute guk bezalaxe eta askotan jostaka ere hauetako batzuekin ibiltzen nintzen.

Batzuetan kezka eta amorrua sortuarazten badute ere beharrezkoak mendiak eta inguruak garbi mantendu nahi badira.

Beste lanbide batean ibilia naiz, diru gehiago jasoz noski, baina hor ere izaten dira komeriak, goizean goiz jeiki eta lan gogorrean pasa eguna, erlojuaren menpean.

Hau bukatutakoan ikastaro bat egin eta abeltzaintza probatzea pentsatu nuen. Sei urte daramatzat, egia diru iturria murriztagoa dela baina Europatik jasotzen diren laguntzari esker aurre egitea badago. Ba ditu bere alde onak, ni erlojurik gabe bizi naiz.”

Argazkian Jabier Klaber Oiarbide, txekorra hartuta mendian.

## **DAGOENEAN BONBON... eta Cedernaren gidaritza lehen sektorean**

Gaurkoan geldituko gara, eta herrian baserri jarduera, modu batean nahiz bestean, praktikan jartzen duten familiei edo etxeei esker ona adieraziko diegu. Ez dira gutxi herrian jarduera hau ukitzen dutenak, nahiz eta transmisioaren soka lausoarekin kezkatuta jarraitzen dugun.

Orain dela urtebete inguru, "kontsumo talde" edo antzeko zerbait sortzearen ideiarri tiraka, bilera batzuk egin ziren herrian eta espero ez bezalako erantzun ona jaso zen, hasiera batean behinik behin! "DAGOENEAN BONBON!" izeneko talde bat sortu genuen, interesa erakutsi zuten guztien telefonoak bilduz, eta oro har, ideia oso sinple batek bildu gintuen talde horretara: gure baserri eta baratzetan sor zitezkeen "soberakinak" herritarren artean mugi zitezela, kanpoko dendetan askotan erosten ditugulako auzoan hondatzen ari diren produktuak. Adibidez, aurten ez da kasua izan baina, sagarrondo betetik izan ditzakegu herriko sagastiak, eta horiek zaindu eta behar bezala aprobetxatu beharrean, "auskalo nongo" sagarrak erosten ditugu ondoko herrietako dendetan.

Bertan sortutakoa kontsumitzeko kontzientzia hori ez da egun batetik bestera sortzen eta gauza zenbat eta gehiago sakondu, nahi adina konplikatzen da gainera! Hasteko, kontsumo talde bat zer den, edo nolakoa izatea espero duen gutako bakoitzak. Elkarte bat sortu beharko genukeen, estatutu batzuekin... kontsumo jasagarria bultzatu bai, baina hau zer den bai ote dakigun... Baina ideia sinplea zen, sinplea bezain interesgarria! Eta erantzuna ere, esan bezala, polita jaso zuen!

Baratza duen edozeinek, soberakinik baldin badu, baratza txikia eta norberaren kontsumorako sortua izanik ere, soberakin horiek batetik bestera mugitzea lor dezake. Eta ideia honek, baratzagintza eta lurra errespetatzea ekar dezake batez ere. Herrian, auzoan, etxean... egin daitekeena ezagutzea, balioan jartzea eta bultzatzea. Baratza mugimendu bat abian jartzea, hala nahi bada... Aranon, etxe guztiek ez bada gehienek lurra badituztela jakinda, baratzari indarra ematearen ideia zabaltzea.

Eta beste horrenbeste esango genuke baserrietan zaintzen diren azienda edo etxabereen produktuekin ere. Arrautzak, esnea, arkumeak, oilaskoa, gazta... herrian hainbat baserri badiugu produktuekin horiek! Baina produktu horien salmentan pentsatzen hastean, trabak sortzen dira berehala! Horien inguruko legediak ez ditu gureak bezalako baserri txikieta jarduerak babesten! Ez ditu zuzeneko salerosketak baimentzen gure herriko nekazariak duten produkzio bolumenetan.

Hori jakinik ere, konfinamendu aurretik elkartrukerako saiakera bat egin zen. Egin zen bakoitzak zer eskain zezakeen biltzen zuen karta moduko bat eta, denbora batez zeresana jarri zuen horrek! Elkarri gure etxeetan egiten genituen produktuak eskatzeko mugimendu txiki bat sortu zen, xumea bezain aberasgarria.

Baina... pena! Berriz esango dugu, legediak ez duela gure eskualdean daukagun baserri txikieta jarduerak babesteko oinarriak eskaintzen! Ezin salerosi, beraz, eta elkartrukerako ohitura ez da erraza gaur egungo gure bizimoduetan.

Etxealdian, komunitate sentipena zabaldu zen ekintza txiki batzuen inguruan eta uste gabe. Jogurtak etxean egiteko errezeta bat zabaldu zela dut gogoan, eta momentu batean 3-4 errezeta bildu genituen gurea bezalako "familia" txiki batean!

Eta, edozein jakintza edo esperientzia elkartrukatzuz handituko bagina herri bezala? Eta gure baserrien jarraikortasunari begirada bat bota eta egoeraren jabe izaten hasiko bagina? Komunitatea, herri izatea eta auzo lanaren baloreak berreskuratzeko ahalegina egingo bagenu?

### **Auzolan egutegia, datorren urterako proposamena**

Cederna Garalurrekin landa eremuko herrien garapena du jomuga, eta bere laguntza balia daiteke lehen sektorea gure herrian ere suspertzeko. Eskualdean, azoka ibiltariak egin dira eta ekoizleen eskaintzaren lanketa ere bai. Aranon, lehen sektorean ogibidez jarduten duen baserriarri ia ez daukagu gaur egun, baina taldetxo batzuk badu nekazaritzak eta abeltzaintzak gurea bezalako herrietan izan ditzaketen trabak leuntzen laguntzeko borondatea, hori besterik ez bada ere; borondate ona.

Horrela, Cederna Garalurrekin urrian egin zen bileran, bertaratutako artean ondorengo proposamena mahaigaineratu zen: auzolana eta baserrietako jakintza zabaltzea ardatz hartuta, baserriko lan desberdinen egutegi bat lantzea datorren urtean zehar.

"DAGOENEAN BONBON" kontsumo taldetik, ekimen desberdinak proposatzen joango gara 2021. urterako, "BEHAR DENEAN LANDAN LAN TA LAN" aritzea ere behar-beharrezkoa baita baserriaren ekarpenaz oartzeko. Auzolan egutegi bat sortzen joango gara, gurea bezalako nekazaritza-eremuetan sor daitezkeen lanak elkarri lagunduz egitea proposatuz, bai Udalak, baina batez ere gure baserriarrek dituzten zereginetara herritarrek gerturatuz. Ez dugu ahaztu behar, Aranon ditugun paisaiak jarduera hauei ere zor dizkiegula.

Neguan kimaketak, txertaketak, zuhaitz aldaketak, gorozketak,... udaberrian lurrraren prestaketa, udan ardiak ile mozteak, belarrak, udazkenean iratze lanak, fruitu biltzea,... Lan hauetarako laguntza behar duten baserriarrek auzolanak antolatzen saiatuko gara taldetik, lan hauen eta mundu honen berri gertuagotik ezagutuko dugulakoan.

Egingo dugu deialdia dagokionean, auzolanetara herritarrek gerturatu asmoz! Egon erne ba datorrenari!

### **Bai al zenekien...**

- Aranok dituen 65en bat etxe eta baserrietatik baratza egiten dutela 35 inguruk?
- Animaliak (etxabereak) dituztela 18 ingurutan?
- Zerria hazten dutela 3 etxetan?
- Gazta egiten dutela bitan?
- Sagardoa edo zukua 6tan?
- Arrautzak dituztela 10 baserri ingurutan?
- Arkumeak, oilaskoak, txekorak, arrautzak, gazta, sagardoa, eztiak, barazkiak, ogia, jogurtak, kontserbak... herri aberatsa dugula jakintzan?





Yoga taldea maisuenean.

# Aranon Yoga

Izarren hautsa egun batean  
bilakatu zen bizigai...

**Y**oga hitza entzutean, berehala etortzen zaigu India burura. Urruneko lur bat, misteriotsua, Ganges ibai sakratua, gizon zahar beltzaran, tximaluzer, meditazio edo postura arraro batean jezarrita, intsentsua, jendez beteriko autobusak pasatzen uzten ez dituzten behi argalak, eta gure bekatuak uxatzeko zorroan gordeta daramagun egin beharreko erredentzio bidaia hori.

Aranoko eskola zaharrean, orain gutxi berritu den Maisuenean, milaka urteko honelako diziplina bat garatzea, orain dela urte batzuk gutxienez, arraro xamarra ikusiko genuela pentsa zitekeen. Eta Aranon, ehundik gora biztanle izanda, horietatik hamar-hamabi yoga klasera etortzea, baliteke, herri batean yoga egiten duen biztanleen batzuek bestekoa, India iparraldeko, Himalayak ukitzen dituen herri ezkutuko bakarrak gainditu dezakeela.

Gure jardueraren kokapena, herriko soziedadearen, Kontsejuaren, ostatuaren, elizaren eta frontoiaren erdian egoteak, sinbolismo berezi batez estaltzen du. Gela zabal bat, egurrezko lur ederra, pareta zurriak, etxearen berezko habe zaharrak teiltua eusten eta kalefakzioa bero. Oraindik gogoratuko ditugu lehen klaseak, galdara piztu ezinik genbiltzala eta urriaren erdirako lehen elurtea bota izana.

Ikasleak hurbiltzen doaz. Atsaldeon. Zapatak bazter batean utzi, zamarrak kendu, sakelako mugikorrak mutu jarri. Esterillak zabaldu eta etzaten edo esertzen goazen bitartean, isiltasunari hurbiltzen uzten diogu, ahoka egiten, hasperen, goitik beheara luzatzen...

Arnasketa edo Pranayama ariketak izan ohi dira klasea irekitzen dutenak. Arnasketa abdominal diafragmatikoarekin hasiko gara. Aire sudurretik hartu eta botaz

gure diafragmaren joan etorria lasaitasun eta bake antzeko bat sorrarazten joango da gure barrenean.

Ariketa hau bukatzean arnasketa konpleto edo Yogikoari emango diogu bidea. Yogaren jardueran, eta bere zabaltasunean, hau da gure barneko munduaren atea irekitzen duen lehenengo giltza. Baliteke urteak behar izatea arnasketa honek daukan bake boterea aurkitzeko, horregatik Yoga irakasleak hain astun bihurtzen gara, gure ikasleei behin eta berriro honekin lata ematen, eta etxeko lan modura bidaltzen.

Hau bukatzean, minutu pare batean utziko diogu gure nerbio sistema parasinpatikoari bere kasa arnas egin dezan. Inongo eragin kontzienterik gabe.

Begiak ireki, eta poliki-poliki zutitzen goaz, mugimendu bortitzik egin gabe.

Mendiaren asana edo posturan ezarriko gara. Gorputzaren pisua hanken planten



azalera osoan utziko dugu, ipurdia, belauak eta sorbaldak erlaxatuz. Arnasketari utziko diogu bere eragiketan. Mugikor bat mezuak bidaltzen, bip-bip. Ez nago ziur nire isiltasunean dagoen. Arnasa hartzen, eskuineko besoa gora, eta botatzen ezkerreko besoa eta gorputz guztia arku bat bezala ilargi erdia deituriko asanan kokatuz. Arnasketa suabe, harmoniko eta erritmiko bati utziko diogu guk proposaturiko asana lantzen tarte batean. Arnasa hartuz buelta gora eta botaz besoa poliki behera.

Maisuaren oharra: sarritan, Yoga hitza entzutean elastikotasun hitza etortzen zaigu burura. Baina hau ez da kanpoko itxura bat baizik. Pertsona bakoitzak, postura zehatz batean, bere asana aurkitu behar du, hau da, erdiko puntu bat, non arnasketa bihurtzen den ariketaren eragile. Postura gure limitetik at badaramagu, arnasketak ezin du lanik egin, itota bezela. Eta, aldiz, gutxiegi eskatzen badiogu arnasketak ez du lanik egingo.

Beraz, Yoga erdibideko diziplina bihurtzen zaigu. Bakoitza bere asanan, erdiko puntu horretan, lasai, arnasean.

Ezkerreko besoa gora, eta arnasa botatzen ilargi erdia eskuinetara.

Gaurko klasearen ostean merendola daukagu Maisuene bertako sukaldean eta pixkat lehenago bukatuko dugu. Nork ekarriko ote du patata tortilla... Ainhoak ogi berezi hura egingo al zuen, sagardoa..., beno, zentra gaitezen.

Arnasa sakonki hartu..., botatzen dugun bitartean bi eskuak bularrera..., berriz arnasa hartuz bi besoak gora..., gorputzaren flexioa botatzen, bi eskuak txorkatilik ukitzen saiatzen direlarik. Gehiegi behar-

**Maisuaren oharra: sarritan, Yoga hitza entzutean elastikotasun hitza etortzen zaigu burura. Baina hau ez da kanpoko itxura bat baizik. Pertsona bakoitzak, postura zehatz batean, bere asana aurkitu behar du**

tu gabe, asanaren erdiko punttu horretan, arnasketa delarik guregan lan egiten duena. Minutu batez mantenduko dugu egoera hau eta arnasa hartuz, ornoztan gorantz joaten gara berriz ere mendiaren asanan kokatuta.

Arnasketa sakon baaaaat!

Yogaz ari diren lehen testuak K.a. V. mende aldera idatziak dira. Gure artera iritsi diren nagusienak (testu sakratu aunitz zuhurki gordeta daudela esan ohi da) hurrengo hauek dira:

Bhagavad gita: Induen liburu sakratua eta munduan diren testu sakratuetan garrantzitsuenetarikoa bat. Kristauen Itun Berria edo Musulmanen Koranaren aldera.

Mahabarata liburu epikoaren zati bat da eta idazle ezezaguna du. Beraren marmia, Krishna (Jaungoikoa) eta Arjunaren (gizaseme bakoitzaren arima indibiduala) arteko elkarriketa da. Arjunak Krishnari galdetzen dio zer egin behar duen haren gana, hau da bere Aitaren etxera heltzeko. Hark esaten dio beraren barruan dagoela erantzuna eta bere barrenean suertatuko dela guda sakratu hau. Honetarako bide

ezberdinak erakusten dizkio, Yogaren bidea, meditazioa, Karmaren bidea, Mantren edo soinu sakratuen bidea...

Patanjali Maharishiren Yoga sutrak: Liburu honekin Yogaren munduan atal berri bat irekitzen da. Kristo aurretik idatzia da baina data zehatzik ez. Hemen argi eta garbi azaltzen dira Raja Yoga edo meditazioaren egin beharreko eta gertatzen diren atalak. (Samadhia edo argitasuna gudan ezagutzea edo Yoga egoera). Hau da lehen helburua. Honi, iniziatuaren bidea deritzo.

Bigarrenez, guregan garatu beharko genuke argi hori, azken askealdi edo igoera arte. Hau, dizipuluaren bidea.

Hatha Yoga Pradikipa: Sanskrietaz idatzia dagoen Hatha Yoga lehen liburu zehatza. XV. mendean Swami Swatmaramak idatzia.

Gure garaiko Hatha (eguzki-ilargi) Yogari buruzko testu nagusien idazleak Iyengar, Van Lisebeth eta Vishnudevananda dira.

Bi oinak zabaldu, bi eskuak bularrera eta airea botatzen ipurdia lurrerantz igelaren asanara. Bi hatz lodiek kopeta ukitzen dutelarik. Zeharo emanda, zeharo eskainita, arnasketa erritmiko natural bati utziko diogu asana lantzen. Arnasketa bera bihurtzen garelako dirudielarik.

Lurrean belauniko gaudela, arnasketa sakon bat egingo dugu. Minutu erdi batez, begiak itxita, bake sentsazioari leku egingo diogu gure barrenean.

Buruz gora etzaten gara gure esterillan. Birrikak beteaz, ezkerreko hanka gora, hustuz berriz, belauna tolestu eta bi eskuetan helduko dugu. Berdintsu ekingo diogu eskuineko hankarekin. Bi belaunak besarkatuta ditugula, arnasketa diafrag-



matiko oso leun batez gure perineoaren gunea edo lehenengo txakra irekitzen saiatzen gara. Aldi berean Sakro (sokratu) hezuraren gainaldeari edo bigarren txakrari eragingo diogu.

Bi txorkatilik eskuekin heldu eta pelbisa gora... ieeuup. Hortxe geldirik minutu batez..., eta behera berriz.

Yogaren munduan, eta zehazki meditatzioaz hizketan ari garenean, nahasketa handia sortzen da. Burua hutsik edo txuri uzten saiatu behar dela, "mind full" edo burua beteta, pentsamenduak gelditzen saiatu behar dela... Nahasketa hau mendebaldean eman zaion izenarekin berarekin sortzen da. Meditatzeko aditza, aditza transibito bat da, hau da, objektu zuzen baten beharra dauka. Hasieran bakarrik, objektu hori laguntza bezala baina ez da helburua eta aurrerago ez du horren beharrik. Sanskriaran Dhyana da hitza. Dhyana egoera baten izena da eta esan bezala hasieran ideia-irudi bat erabil daiteke, baina hau gaitzitea da lana. Gaitzitean, testiguarren edo behatzailearen begirada gelditzen da bakarrik, behaketa isil batean. Dharana deritzaio egoera honi. Dharana egoera honen mantentzeak hurrengo atalera eraman gaitzake. Guregan, den hori ezagutzea. Den hori, Dena, gure baitan azaltzean, bizi printzipio bezala, izpiritu bezala, izaki guztiak pizten dituen printzipio bezala ezagutzen da. Egoera honi, Samadhi, argitasun edo dualitate gabe egoera deritzaio. Baita ere, Yoga egoeraren lorpena.

Ahazgora etzanda gaudelarik oraindik, bi eskuak giltzurdinetan jarriko ditugu eta kolpe bortitz samar batez kandelaren asanara pasako gara. Hankak eta pelbisa airean dauzkagula eta gorputzaren pisua sorbaldetan eta ukalondoetan. Asana zorrotz samarra eta lehenengo barretxoak eragiten dituen. Bi belaunak kopetaruntz tolestu, hankak luzatu eta gibelean genituen eskuak lurrean etzaten ditugu, laia deritzaio asanara trantsizioa eginez. Arnas egiteko ia kabidarik gabe, diafragmaren laguntza eskatzen dugu, gure abdominalaren barnean oraindik lekutxoren bat gelditzen dela ohartuz. Poliki-poliki asana desegiten joaten gara, beharakoan zerbikala jasoaz, tentsio gehiegirik jaso ez dezan. Etzanda gaudela arnasketa sakon baaat...

Buelta erdia eman eta buruz behera jarriko gara. Unetxo batez lasai... Ezkerreko eskuarekin alde bereko txorkatila heldu,



eskuinarekin bere aldeko arku deritzaio asanara kokatzeko. Burua altxa eta arku tenkatuko dugu. Hemen arnasketa kontrolpean mantentzea da gakoa, sakona, erritmikoa eta lasaia. Txorkatila bat askatu, gero bestea eta lurrean etzanda berriro. Belaunen gainean eseri, ipurdia orpoetara eramango dugu, kopeta lurrean eta eskuak ere taloietan ditugula, enbrioiaren asanara, lasai eta babestuak sentitzen garen barne leku intimo bat zabaldua, goxo, bakean, arnasean.

### Lurrean etzaten joaten gara..., mantarekin ongi tapatu, erlaxazio saiorako prest, gure Yogaren atal desiratuean

Burua eta gorputza gora, belauniko, arnasketa sakon baaat... Begiak itxita barne begirada bekainen artera eramango dugu, gure pentsamenduak jaso eta haruntz bidaliz, bortize urtsu eta etengabeko bat bailiran. Dharana berriz. Lurrean ipurdiaren gainean eta hankak luzatuta dauzkagula, bi eskuak lurrean eta burua sorbalden artean erdi ezkutututa.

Begiak itxita. Arnasketa sakon baaat...

Ezkerreko hanka jaso eta eskuinarekin gainetik pasako dugu beste aldera, lurrean apoiatuz. Eskuineko besoa altxa eta gorputzarekin batera ezker aldera egingo dugu tortzio bat. Eskuin ukalondoa ezkerreko belaunean eta ezkerreko eskua lurrean dugularik ipurdian atzean. Arnasketa lasai batekin landuko dugu proposatutako asana. Asana desegitean kontrako aldera errepikatuko dugu.

Lurrean etzaten joaten gara..., mantarekin ongi tapatu, erlaxazio saiorako prest, gure Yogaren atal desiratuean. Begiak itxita, mantatxoaren berotasuna nabaritzen, gorputza goitik behera, atalez atal erlaxatzen saiatuko gara, konzentratu eta loak hartu gabe ahal den neurrian. Zurrungatxoaren bat azalduko da, arratsaldeko orduetan sartuta, egun neketsua, askotan ezinbesteko suertatzen zaigu. Gure arreta guztia hanketara eramaten, aginduko diegu..., relaaax... Belaunak, izterrak... relaaax... Gorputz guztia errepasatu dugu; besoak, eskuak, lepoa, burua, aurpegia... Behinik eta gorputzaren atal guztiak erlaxatzen eta oraindik ernai bagaude, egoera sakonago batera murgilduko gara.

Nahigabeko arnasketan, arnasa botatzen dugun bakoitzean, gorputza esterillaren kontra ondoratzen nabaritutako dugu gero eta gehiago, gero eta astunago. Mugimendu txikiak ere egiteko gai ez garela, barne presentzia, arreta lasai eta argia, bekainen artera eramango dugu, nondik, ezeri erreparatu gabe, barne irribarre batek betetzen gaituela, bakean, soilik behaketa egoten uzten diogu geure buruari tarte batean.

OM...OM...Hanketako behatzak poliki mugituz..., hatzak..., eskuak estutzen..., goitik behera ongi luzatuz kanporatzen joaten gara, azaleratzen... berriz bueltan.

Milesker... Namaste...

Gaur merendola daukagu. Ikasturtean hiru edo lau egiten ditugu. Patata tortilla, etxeko ogia, gazta, sagardoa... Surtido Kuetara ere ez zaigu faltako. Meriendarik ezean Kontsejura jaitsi ohi gara, esibiziyua nola joan den kontatzen dugun bitartean ardo pare bat hartu eta etxera. Aranon honelako gauza txikiekin bizitzen gara.

• **Ikaki Roteta**

# Sukaldean, hamaika aukera

**A**ranon badira aita-alaba ezagunak, Jabier Ansa ehiztaria, Basurde izendatua, eta Nerea Ansa, honen kontran duela hamar urte begana izatea hautatu zuena. Animaliei maitasuna hizpide, ehiza txakurrak zaintzen elkar aurkitu dute aita-alabak. Gaurkoan, paseoan bueltan gisatu bana prestatu dute abiapuntu berdinetik, bakoitzak bere osagaiak erabiliz.

## Basurde gisatua

• by Basurde, Javier Ansa

3-4 pertsonentzat

Prestaketa: bi ordu eta erdi

### OSAGAIK:

- 1 Azenarioa
- 1 Tipula
- 1 Porrua
- Ilarrak (lata 1)
- 500 g basurde haragia
- 4-5 patata txiki
- 1 starlux



### PRESTAKETA:

- Porrua, azenarioa eta tipula txikitu eta kazulara bota olio dexterekin; bero ertainean jarriko dugu.
  - Haragia "sellatu" egingo dugu. Horretarako zartagi batean olio jarri eta bero-bero dagoenean haragia botako dugu. Kanpotik gorri-gorri utziko dugu eta barrutik egin gabe. Bukatzerakoan haragia barazkien kazulara gehitu.
  - Haragia egin dugun zartagia berotzen utziko dugu beste pixka bat, eta bero-bero dagoenean ur pixka bat botako dugu bertan. Hau segituan irakiten hasiko da eta haragiak utzitako zaporea hartuko du. Ondoren kazulara gehitu.
  - Patatak zuritu eta moztu egingo ditugu. Bakoitzaren erdia patatak zuritzearekin moztuko dugu, xafla txikitan. Beste erdiak zati potolotan zatitu.
  - BASURDEAREN TRUKO!! Xafla txikiak barazki eta haragiarekin nahasiko ditugu. Horiek saltsa loditzen lagunduko dute.
  - Ur beroa gehituko diogu egindako nahasiari; orain arteko osagaiak tapa ditzan arte.
  - Starlux-a gehituko dugu, baita gatza ere bakoitzaren gustura.
  - Suaren potentzia erdira utziko dugu, irakiten jarrai dezan baina xuabe.
- Horrela 2 ordu egongo da.
- Ordu eta erdi pasata gutxi gorabehera, gelditzen zaizkigun patata zatiak eta ilarrak gehituko ditugu. Eta beste ordu erdi bat utziko dugu suan.
  - 2 orduak pasata haragiaren xamurtasuna begiratuko dugu, honek esango baitigu gisatua prest dagoen.
  - Behin haragia xamurra dagoela, sutik kendu, platerean zerbitzatu, ogi zati bat hartu eta on egin!

## Gisatu beganoa

• by Nerea Ansa

2-3 pertsonentzako

Prestaketa: bi ordu eta erdi

### OSAGAIK:

- 1/2 Azenarioa
- 1 Tipula
- 1 Porrua
- 2 Txanpi
- Ilarrak (lata 1)
- 200 g Pop (proteína texturizada de guisante)
- 3-4 patata txiki
- Ardo beltza (txorrosta)
- 1 barazki starluxa
- Soja saltsa
- Baratxuri eta perrexil hautsa



### PRESTAKETA:

- Pop-ak beratzeko, katilu batean ipini ura, soja saltsa eta baratxuri+perrexil hautsarekin, bakoitzaren gustura (beste espezie batzuk ere erabili daitezke). Horrela izango ditugu barazkiak prestatzen ditugun bitartean.
  - Porrua, azenarioa, tipula eta txanpiak txikitu eta kazulara bota olio dexterekin eta bero ertainean jarriko dugu.
  - Zartagi batean olio berotu eta pop-ak egingo ditugu, horitzen direnean katilura aterako ditugu berriz, beranduago erabiliko ditugu berriz.
  - Pop-ak egin ditugun zartagia berotzen utziko dugu beste pixka bat eta bero-bero dagoenean ur pixka bat botako dugu bertan. Hau segituan irakiten hasiko da eta horiek utzitako zaporea hartuko du. Ondoren kazulara gehitu.
- ### Papa trukoa
- Patatak zuritu eta moztu egingo ditugu. Bakoitzaren erdia patatak zuritzerakoan moztuko dugu, xafla txikitan. Beste erdiak zati potolotan zatitu.
  - Xafla txikiak barazki eta pop-ekin nahastuko ditugu.
  - Ur beroa gehituko diogu egindako nahasiari; orain arteko osagaiak tapa ditzan arte.
  - Barazki starlux-a gehituko dugu, ardo beltza txorrosta bat eta baita gatza ere bakoitzaren gustura.
  - Suaren potentzia erdira utziko dugu, irakiten jarrai dezan baina xuabe.
- Horrela 2 ordu egongo da.
- Ordu eta erdi pasata gutxi gorabehera, gelditzen zaizkigun patata zatiak eta ilarrak gehituko ditugu. Eta beste ordu erdi bat utziko dugu suan.
  - Bukatzeko 15 minutu gelditzen direnean, pop-ak gehituko ditugu saltsaren zapoerarekin nahasi daitezten.
  - 2 orduak pasata konprobatu patata zatiak ondo eginak daudela.
  - Behin patatak eginak, sutik kendu, platerean zerbitzatu, ogi zati bat hartu eta on egin!





# Nola adierazi Aranoko baserri izenak, emotikonoak erabiliz?

**F**rontoiko plaza hutsik egon zen denbora hartan "Aranon zer berri" whatsapp taldea izan genuen Aranoarren topaleku. Elkarren berri jakin eta tarte edo momentu atseginak pasatzeko espazioa. Lanari, harremanei, aisialdiari... iragazki digitala jarri genien. Itxialdia Etxe-aldia izan zen eta horiek ere emotikono bitartez izendatzeko erronka dibertigarriari heldu genion. Batzuk sortzen, besteok asmatzen, eta parte hartuz herria girotzen!



- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
9. A
- 10.
- 11.
- 12.
- 13.
- 14.
- 15.
- 16.
- 17.
- 18.
- 19.
- 20.
- 21.
- 22.
- 23.
24. Fe
- 25.
26. I
- 27.
- 28.
29. N-e

# Ezagutzen al duzu Arano?

Ezagutzen dugu gure herria, noski, baina horrek ez du esan nahi Aranori buruz esan litezkeen gauza guztien berri zehatz-mehatz daukagunik. Beti izaten da zer edo zer ikasteko. Test labur honekin bi gauza egin nahi ditugu: zeure burua pixka bat estutu, alde batetik, zure ezagutza norainokoa den ikusteko. Eta, bestetik, Aranori buruzko jakingarri batzuk aldizkarira ekarri, zerbait ikasteko aukera emanaz. Hortxe dituzu galderak eta erantzuteko hiru aukerak, eta bukaeran erantzun zuzenak. Ea ba.

- 1.- Zein da Leunetako gainaren altuera?**
  - a) 945 m
  - b) 883 m
  - c) 726 m
- 2.- Zein urtetakoa da Aranoko elizako erloju zaharra?**
  - a) 1789koa
  - b) 1856koa
  - c) 1909koa
- 3.- Hauetako bat ez da Aranoko toki-izen bat. Zein?**
  - a) Burninburu
  - b) Egibeltza
  - c) Urremeatzeta
- 4.- Nafarroak sei meralalde ditu. Horietako batean kokatuta dago Arano. Zeinetan?**
  - a) Iparraldeko meralaldean
  - b) Iruñeko meralaldean
  - c) Baztango meralaldean
- 5.- Zein dira Aranorekin muga egiten duten herriak?**
  - a) Goizueta, Errenteria, Donostia, Hernani eta Elduain
  - b) Goizueta, Donostia, Hernani, Elduain eta Berastegi
  - c) Goizueta, Errenteria, Donostia, Hernani eta Berastegi
- 6.- Zein izan da azkeneko 120 urteetako biztanle kopururik altuena Aranon?**
  - a) 228 biztanle, 1976an
  - b) 501 biztanle, 1920an
  - c) 399 biztanle, 1953an
- 7.- Urteko zenbat egunetan egiten du euria Aranon?**
  - a) 170 egunetan
  - b) 231 egunetan
  - c) 286 egunetan
- 8.- Noiz banatu ziren administratiboki Arano eta Goizueta?**
  - a) 1576an
  - b) 1601ean
  - c) 1630ean
- 9.- Zein altueran dago Aranoko herrigunea?**
  - a) 446 m
  - b) 346 m
  - c) 226 m
- 10.- Zenbatekoa da Aranoko azalera?**
  - a) 8,7 km<sup>2</sup>
  - b) 13,7 km<sup>2</sup>
  - c) 19,7 km<sup>2</sup>
- 11.- Zenbat kilometro daude Aranotik Iruñera?**
  - a) 58 km
  - b) 68 km
  - c) 78 km
- 12.- Zer da eltzeorra?**
  - a) Zahartu eta gogortu den eltzea
  - b) Ardiek gustuko den belarra
  - c) Besteak beste animaliak izutzeko erabiltzen zen musika tresna
- 13.- Zer lurperatzen zuten cromlech, mairu-baratza edo harrespiletan?**
  - a) Ehizatutako animalien hezurrak
  - b) Hildakoen errautsak
  - c) Hildakoen bitxiak
- 14.- Noiz berritu zen azkeneko aldiz Larriturriko labaderoa?**
  - a) 1922an
  - b) 1942an
  - c) 1962an
- 15.- Noiz jotzen zen ama-ezkila?**
  - a) Eguzkia ateratzean
  - b) Eguerdian
  - c) Eguzkia gordetzean
- 16.- Noiz sortu zen San Roke Elkartea?**
  - a) 1915ean
  - b) 1953an
  - c) 1974an
- 17.- Zenbat baserri daude Aranon?**
  - a) 20 inguru
  - b) 40 inguru
  - c) 60 inguru
- 18.- Euskara hizkuntza ofiziala al da Aranon?**
  - a) Bai, Aranoko hizkuntza ofizial bakarra da
  - b) Bai, gaztelaniarekin batera
  - c) Ez, ez da ofiziala
- 19.- Arano Iruñeko Meraldeko bailara historiko bateko partaide izan zen. Zein da bailara hori?**
  - a) Basaburua txikia
  - b) Basaburua handia
  - c) Mendialdea
- 20.- Zer da gainiyarra?**
  - a) XIX. mendean galdutako musika tresna
  - b) Belar metaren gainean ibiltzen den arra
  - c) Sua pizteko zotz lehorra

Erantzun zuzenak: 1-b; 2-c; 3-c; 4-b; 5-a; 6-b; 7-a; 8-c; 9-a; 10-b; 11-c; 12-c; 13-b; 14-b; 15-c; 16-c; 17-b; 18-b; 19-a; 20-c.